



ELEKTRARIDE

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Argi dago beste bazkide- edo hornitzaile-sareekin elkartzea oso lagungarria eta beharrezkoa izan daitekeela gure proiektua aurrera eramateko. Hainbat elkarterekin harremantzea ezinbestekoa izango da, gure bezeroei ahalik eta arreta hoberena emateko. Hauen artean “**ekihherri**”, “**EcoXtrem**”, ...

Gure produktua aplikazio baten bitartez funtzionatuko duenez gure aplikazioa sortzeko “**Lisit**” enpresarekin harremanetan jarriko gara. Horrela, patineteak desblokeatzeko ezinbestekoa den QR-a funtzionatzea lortuko genuke eta gure empresa eskuragarria egingo genuke. Empresa hau aukeratu dugu, izan ere, malguak dira eta gure beharretara egokitzen dira.

Batetik, patineteak, herriko udalatxearekin kontaktatu beharko genuke beraien baimena izateko proiektu hau aurrera eramateko. Behin beraien baimena dagunean, gure ofizinen instalazioa edukitzeko pisu edo lokal baten jabearekin kontaktuan jarriko gara gure nahien arabera lokalean edo pisuan bertan erreforma egiteko eta horrela, horri probetsua ateratzeko.

Horrez gain, oso beharrezkoa da energia berriztagarriarekin lagunduko gaituen enpresa edo kooperatiba batekin harremantzea. Ezinbestekoa da patineteak kargatzeko plaka solarrak beharko dugula aipatzea, izan ere, energia modu natural batean lortuko dugu. Gure patineteetarako “**ekihherri**” kooperatibarekin kontaktatu nahi dugu, izan ere, nahiz eta haien produktuen eskaintza berria den, talde on bat

sortu dute herrian laguntza eta onurak eskaintzeko. Eskaintza horren barruan hainbat helburu dituzte, eta horietako bat mugikortasun jasagarriko proiektuak gauzatzea da, zeina gurearekin bat dator kasu honetan. Laburbilduz, gure beharretara guztiz egokitua dagoen kooperatiba da.



Gainera, patineteak lortzea ezinbestekoa izango da, hau lortzeko “**EcoXtrem**” enpresarekin harreman bat sortu nahi dugu. Enpresa hau erabakitzearen arrazoia haien patineteak hainbat modeloren neurrira egindako fabrikazioak egiten dituztela, horrela gure eskakizunetara egokituko dira, urte askotarako iraun dezakete eta oso ekonomikoak dira. Baita ere, produzitzen dituzten



ELEKTRARIDE

patinete elektrikoak marka zuriarekin edo behar dugun beste edozein markarekin egin ditzakete, beraz, gure markarekin egin ditzazkegu eta hauek pertsonalizatu.

Oso enpresa handi bat sortu nahi dugu, eta nahiz eta motibazioa eta gogoak eduki, ezingo dugu lan guztia bakarrik egin, beraz, sozietate batzuekin kontaktatzea eta lan egitea oso onuragarria izango da. Batez ere, hau baliabideak eskuratzeko egingo dugu, baina enpresen arteko kooperazio honek era berean arriskuak murriztu eta negozio eredia optimizatu dezake, elkarrekin hauekin horrela, gure balorezko proposamena gauzatu ahal izango dugulako.

Horrez gain, behin enpresa sortua dagoenean, bezeroak erakartzeko beste hainbat enprekin edota sozietateekin egingo dugu aliantza. Aliantza hauetan beste enpresek zerbait eskainiko digute, bezeroak, eta guk haiei beste zerbait. Hau da, harreman onuragarria izango da beraientzat, gure aliantza Oiertzo batxilergoa eta Orereta ikastolarekin egingo genuke.

Orereta ikastola edota Oiertzo batxilergoa-rekin aliantza sortzea erabaki dugu, izan ere, gertuen dugun edota ezagunena den ikastola da eta hauek gure enpresaren publizitatea egiteak hainbat ikasle gazte erakarri ditzazke gure patineteetara, ikasleek guk proposatutako zerbitzua erabili dezaketelako. Trukean, guk ikasleei erabiltzeko aukera emango diegu deskontuak eskainiz.

Laburbilduz, argi dago enpresa hauekin kontaktatzea oso onuragarria izango dela gure enpresarako baliabideak eskuratzeko, negozio eredia optimizatzeko, arriskuak murrizteko eta batez ere, bezeroak erakartzeko eta haiei proiektua baldintza hoberenetan eskaintzea.